

dirukiak

LANEKO EUSKARA

FINANTZA-ERAKUNDEETAN

GUARDASOL FINANTZARIOA

11. IKASTUNITATEA

IRAKASLEAREN LIBURUA

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1. Lan-egitasmoa
2. Ikastunitatearen ibilbidea

2. Atazak

- A Ataza:** Atodorriesgoa
- B Ataza:** 0 km
- C Ataza:** Lasaitasunean bizitzeko giltza
- D Ataza:** Arriskuanitza

3. Eranskinak

1. Bideo-pasarteak
2. Testuak eta fitxak

1. Sarrera

1. LAN-EGITASMOA

Lagun Aro Aseguru etxeak egindako inkestaren datuek adierazten duten bezala, heriotza eta lanpostua galtzea dira gure gizartearen kezkarik nagusienak. Eta kezka horien konponbidea bilatzearen edo, osasun-maila egokia ziurtatzea batetik eta dirua babestea bestetik izango dira hiritarraren jarraibide nagusiak aseguru-plan bat aukeratzeko erabakia hartu behar duenean. Familiartekoren baten heriotza, iraupen luzeko gaixotasuna edo gaixotasun larria, baliaezintasuna, enplegua edo negozioa galtzea, langabezia, istripuak orokorrean, etxean sutea edo gas-leherketa izatea, jubilazio edo erretirorako pentsioa, urak gainezka egitea etxean... horietan dira inkesta horretan kezka-iturri nagusi bezala azaldutako arrazoiak. Eta horrexegatik, ezbehar horiei aurre egiteko eta horien kalteak nolabait arintzeko ezarri dira aseguru-modalitate desberdinak, ikastunitate honetan jorratuko direnak.

Aurreneko atazan, aseguruaren mundu zabalera hurbilduko gara, betiere erakunde finantziario langilearen ikuspegitik. Lehen azpiatazan, aseguruaren historia laburbiltzen duen testu bat abiapuntutzat harturik, gizakiok mendeetan zehar zer aseguru nahi izan dugun aztertuko dute. Bigarrenean, prentsako albiste batzuk erabiliz, ulermena lantzeko jardura batzuk egingo dituzte eta hirugarrenean, azkenik, ulermenean arlo lexikalak duen garrantziaz jabetzeko aukera izango dute.

Autoen aseguruaren jorratuko da bereziki ikastunitate honetako bigarren atazan. Horretarako, lehenik eta behin, ibilgailu-aseguruaren ezaugarriak jorratuko dituzte iragarki batean oinarriturik. Bigarrenik, egunkariko testu batean gazteentzako aseguruaren baldintza aldakorrak azpimarratu ondoren, aseguruaren zein beste faktorek alda dezaketzen adosten saiatuko dira, irratiko pasarte bat entzun aurretik. Eta atazari amaiera emateko, esku-orri batean erdarazko termino tekniko batzuei euskarazko ordaina bilatu ostean, testu bereko beste kontzeptu batzuk bezeroari zabalago nola azaldu simulatuko dute.

Bizitza-aseguruaren inguruan arituko dira ikastunitatearen hirugarren atazan. Lehen azpiatazan, iragarki bat eta informazioko orri bat zein aseguru-motari dagozkion erabakiko dute. Bigarrenean, bezero jakin batzuei aseguruaren plan orokorra egiteko eskatuko zaie. Hirugarrenean, prestazioen definizio eta edukiak aztertuko dituzte, grafiko batetik abiatuz modu ulergarrian irakasleari azaltzeko.

Laugarren atazan, aldizkari espezializatu batek bizitza-aseguruari buruz argitaratutako lana aztertuko dute: adinak duen garrantzia, kontuan hartu beharreko trukuak, eta beste hainbat puntu jorratuko dituzte. Erakunde finantziario batek bere bezeroei igorritako mailing gutuna baliatuz, beren kasu partikularreko bizitza-aseguruaren kalkulua egingo dute eta amaitzeko, bizitza-aseguruaren iragarki desberdinak ere elkarrekin konparatuko dituzte, alderdi formaletik bezala baita lexikoaren aldetik ere aztertuz.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



2. ATAZAK

A ATAZA: ATODORRIESGOA

HELBURUAK

- Irakurketa helburuaren arabera informazio orokorra eta xehea testuan aurkitzea.
- Hiztegiarekin izan ditzakeen hutsuneak gainditzeko estrategiak ezagutu eta jabetzea.

ZERTAN DEN

- Aseguruaren historia laburbiltzen duen testua izango da abiapuntua, gizakiok zer aseguratu nahi izan dugun aztertzeko. Aurrekoarekin lotuta, prentsako albiste batzuk erabiliz, ulermena lantzeko jarduera batzuk egingo dituzte. Ulermenean arlo lexikalaren garrantziaz jabetzeko aukera izango dute azkeneko atalean.

Prozedura:

1

Atazaurrea: gaia bideratu

- Irakasleak aseguruaren historia laburtzen duen artikulua bat irakurtzeko emango die ikasleei, **eranskina 1**-tik fotokopiatua. Irakurri aurretik, irakaslearen laguntzaz*, gisa horretako artikuluan aipa daitezkeen aseguru-gaiak eta lanbideak aurreikusi beharko dituzte, gero, denon artean taula betetzeko. (10')
 - Artikulua gainetik irakurriko dute eurek aurreikusitakoa betetzen den egiaztatzeko. (10')
- (*) Hobe da gaur egun eta etorkizunean aseguratzeko dena eztabaidatzetik hasia, ikasleek gertuago eta ezagunago izango dutelako.

Gauzak	Lanbideak
Uzta	Harginak
Arrantza	Artisauak
Etxea	Merkatariak
Salgaiak	Emagalduek
Arte-lanak	Nekazariak
	Arrantzaleak

Ataza: albisten izenburuak eta informazio zatiak uztartu

- Irakaslearen orrian aseguruarekin lotura duten hainbat albisteren izenburuak jarri ditugu. Baita, albisteetatik ateratako informazio zatiak desordenan ere. Irakasleek, binaka jarrita, izenburu bakoitzari dagokion informazio zatia lotuko diote.

Zuzenketa-orria

Titularra	Esaldia
1	1
2	4
3	5, 7
4	2
5	3
6	6

- Gero, **eranskina 2** fotokopiatua, albisteetako hutsuneetan informazio zatiak txertatuko dituzte. (10')

Feedbacka

- Irakasleak ikasle ezberdinei albiste bana irakurraraziko die ataza ondo egin duten jakiteko asmoz. (5')

Gramatika eta diskurtsoa: hiztegi berezituaren garrantzia

Lanbide edo alor profesional bakoitzean badira hainbat hitz bertan diharduen teknikariarentzat arruntak eta ohizkoak izan arren, profesional horrek berak bere zerbitzuaren edo lanbidearen erabiltzaileekin nekezago erabiliko dituenak. Are gehiago euskararena bezalako egoeran dagoen hizkuntza minorizatu baten kasuan. Horren guztiaren adibidea B atazan entzungo duten irratiko grabazioa da. Irakasleak ideia honen garrantzia azpimarratuko die ikasleei, euren ikas-estrategietan eragiteko asmoz.

Ikaslearen orrian, aurreko testuetatik aterata, hitz batzuk jarri ditugu erdaraz. Bezeroekin erdaraz izan ohi dituzten elkarrizketa komertzialetan, arruntak edo, aitzitik, zailegiak ote diren galdetuko die irakasleak. Ildo horretatik jarraituz, bezeroentzat arrotzak izan daitezkeen hitzak saihesteko nolako estrategiak erabiltzen dituzten komentatuko dute. Irakasleak horrelako estrategia batzuen berri emango die euskaraz hitz egiterakoan aplikatzen*. (10')

Horrez gain, hitz eta termino batzuk buruz ikasi behar dira ezinbestean, zerrendakoak esaterako. Ikasleek euskarazkoak irakurri berriko testuetan aurkitu behar dituzte, bakarka lan eginda, testuei erantsitako zenbakien laguntzaz. (10')

(*) HABE-HEOK 136. orrialdea

B ATAZA: 0 Km

HELBURUAK

- Ibilgailuen aseguruaren ezaugarriak garrantzitsuenak bereizten saiatuz argudioak arrazoitzea.
- Konparaziozko esaldiak lantzea.
- Artikulu batean, irizpide jakin baten arabera, ideiak azpimarratzea.
- Irizpideak adostea eta besteenekin kontrastatzea.
- Hiztegi berezitua lantzea.
- Bezeroari azalpen zabalagoak ematen trebatzea.

ZERTAN DEN

- Lehen azpiatazan, ibilgailuaren aseguruaren ezaugarriak jorratuko dituzte iragarki batean oinarriturik. Bigarrenean, egunkariko testu batean gazteentzako aseguruaren baldintza aldakorrak azpimarratu ondoren, aseguruaren beste zein faktorek alda dezaketean adosten saiatuko dira, iriati-pasarte bat entzun aurretik. Amaitzeko, esku-orri batean, erdarazko termino tekniko batzuei euskarazko ordaina bilatu ostean, testu bereko beste kontzeptu batzuk bezeroari zabalago nola azaldu simulatuko dute.

Prozedura:

1

Atazaurrea: aseguruak sailkatu

- Ikaslearen orrian zerrenda bat dute aseguru ezberdinez osatua. Ikasle bakoitzak ordenan jarriko ditu bere ustez ohiko eta ezagunenetik hasita. Gero, zerrendak denon artean alderatuko dituzte. (5')

Ataza: iragarkiaren mezua aztertu

- Ikasleei ibilgailu-aseguruaren iragarki on batek azpimarratu beharko lituzkeen lau kontzeptu/ezaugarri sailkatzeko eskatu die irakasleak, orrian jasota dauden artean aukera eginez. Hiruko taldeetan lan egingo dute eta denbora hartuko dute euren aukera arrazoitzeko. (10')

Azalpena:

- Hirukote bati baino gehiagori euren aukera arrazoituz sailkapenaren berri emateko esango die irakasleak. Agertuko dituzten desadostasunak baliatuko ditu irakasleak eztabaida labur eta bizi bat bideratzeko. (15')

Feedbacka

- Benetako lau ezaugarri zein diren ez dago esaterik, beraz, **1. bideo-pasartean (db 1383)** iragarki bat ikusiko dute eurek esandako ezaugarriak ageri ote diren ikusteko. (5')

Gramatika eta diskurtsoa

- Atazaren prestaketan eta azalpenean euren erabakiak alderatzerakoan, konparaziozko esaldien beharra izango dute; esaterako, *bezero arruntak gehien begiratzen duena prezioa da*; edo, *prezioa bezain garrantzitsua da hurbiltasuna...* Hortaz, irakasleak ikasleen beharrei aurre egiteko konparazioak lantzeko ariketa batzuk presta ditzake.

2

Atazaurrea: artikulua irakurri eta ideia batzuk azpimarratu

- Ikasleek euren orriko artikulua (*Ibilgailuen aseguruak*) irakurriko dute eta, irakurri bitartean, kontsumitzaile bezala bidezkoak iruditzen ez zaizkien neurriak azpimarratuko dituzte. Esaterako, lehen paragrafoan, aseguru etxeek 25 urteko adina eta gida baimenarekin bi urteko esperientzia baino gutxiago(10')
- Gero, denon artean eta irakaslearen laguntzaz, azpimarratutako esaldiak bilduko dituzte. (5')

Ataza: irizpide batzuk adostu

- Artikuluan gazte izatea da aseguruua garesti dezakeen faktore bat baina badira beste batzuk. Ikasleek, hirunaka jarrita, orrian zerrendatutako faktoretatik aseguruaren priman zein diren eragile adostuko dute. Irakasleak denbora utziko die euren artean komentarioak egin ditzaten. (10')

Azalpena

- Irakasleak, arbelean, taldetxo guztiek adostutako faktoreak jasoko ditu. Seguruenik, euren bizipenak eta pasadizoak kontatuko dituzte, norberaren eskarmentuan oinarrituko baitira iritzia plazaratzerakoan. (10')

Feedbacka

- Erantzun bakar eta zehatzik ez dagoenez, **2. bideo-pasartea** entzungo dute, irratsaio batean aseguru-etxeei egindako kontsultetatik argibide batzuk izateko. (10')

Gramatika eta diskurtsoa

- Bideo-pasartean nabarmen gelditu da, nahiz eta aseguru-etxeetako profesionalak euskaldunak izan, hainbat hitz eta kontzeptu erdaraz esaten dituztela. Ikasleek euren orrian horietako batzuk dituzte, Lagun Aroren argitalpen batean euskararen ordainak bila ditzaten. Testuan bilatu aurretik, komeni da ikasleek kontzeptu horiek euskaraz nola esango lituzketen hausnartzea. (15')

Atazaostea: aseguruaren estaldurak bezeroari azaldu

- Esku-orriko paragrafo batean aseguruaren estalduren berri ematen da. Egoera komertzial batean, profesionalari estaldura bakoitzaren azalpen zabalago ematea egokituko zaio. Horretarako, adibidetara joko du edota parafasiak edo... Ikasleek egoera komertziala simulatuko dute.
- Lehendabizi, hirunaka jarrita, zortzi estaldurak bezeroari azaltzeko modua prestatuko dute: adibideak, hiztegia... (15')
- Gero, irakasleak bere burua bezero ezjakintzat hartuta, banaka estaldurak azaltzeko eskatuko die, ikasleak txandaturaz. (15')

C ATAZA: LASAITASUNEAN BIZITZEKO GILTZA

HELBURUAK

- Aseguru-motak helburu ezberdinen arabera sailkatzea.
- Bezeroaren ezaugarriak ezagututa bere premia guztiak beteko duen aseguruaren plana diseinatu eta eskaintzea.
- Aurreko atazen haritik, eremu semantikoa lantzea.

ZERTAN DEN

- Bezero bati gomenda dakioken aseguruaren plana izango da ardatza ataza honetan. Abiapuntua bizitza-asegurua eskaintzen duten iragarki bat eta formaziorako testu bat izango dira eta helmuga, bezero ezberdinei euren ezaugarrietara egokituko den plan oso bat eskainitakoan zeharkatuko dute ikasleek.

Prozedura:

1

Atazaurrea: aseguru-mota igarri

- Igarkizun gisa planteatutako atazaurre honetan aseguru-mota bati buruzko bi dokumentu lagungarri ikusi eta irakurriko dituzte. Lehendabizikoa, **3. bideo-pasartean** grabatutako iragarkia da (amaiera kenduta daukana) eta, bigarrena, Euskadiko Kutxaren formaziorako orri baten hasiera. Iragarkia ikusita eta testutxoak irakurrita zein aseguru-motaz ari diren induzitu beharko dute, euren orriko zerrendakoei begira.
- Amaieran, **4. bideo-pasartean**, iragarki osoa ikusiko dute. (10')

Atazaurrea: hiztegia

- Hurrengo atazetan aseguru-mota ezberdinez jardungo dute ikasleek eta *seguros de* formarekin arazoak izango dituzte. Horregatik, komeni da, irakasleak zertxobait argitzea euskaraz erabili beharreko formulazioa.

Ataza: aseguruak sailkatu

- Aritu finantzarioak bezero bati aseguru-plan oso bat diseinatzerakoan, lehendabizi era orokorrean, aseguruak sailkatu beharko dizkio helburu ezberdinen arabera. CECA erakundearen dokumentu batean aseguruak bost multzotan sailkatu dituzte. Ikaslearen orriaren dokumentua dago baina, informazioa ez dago osorik. Ikasleek, hiruak jarrita, hutsuneak osatu behar dituzte aseguruak multzotan sailkatuz. (15')

Azalpena

- Irakasleak aginduta, hirukoteek multzo bakoitzeko aseguruak azalduko dizkiote: helburua, zein aseguru den, ezaugarriak... Baliteke, taldeen artean desadostasunak egotea. Horrela balitz, irakasleak euren artean eztabaidatzen utziko die, hitz eta kontzeptu teknikoak erabili ditzaten. Hala ere, gehiegi luzatzea komeni ez denez jatorrizko dokumentua luzatu die, **3. eranskina** fotokopiatua. (20')

Feedbacka

- Jatorrizko dokumentuak dakarrena euren proposamenekin alderatutakoan, irakasleak azalpenean jaso dituen oharrak jakinaraziko dizkie. (15')

2

- Hainbat aseguru-motatan bezeroak zalantzak izan ditzake aseguruak estaltzen duen ezbeharraren suertatuz gero, zer eta nola eskuratuko duen ez bazaio, aurretik, garbi azaldu. Irakaslearen orriaren CECAREN dokumentu bat jarri dugu prestazio-moduak azaltzeko. Irakaslea izango da bezeroa.

Ataza: bezeroari prestazioak azaldu

- Grafiko osoa azaltzea korapilotsua gerta dakiekeenez, lehen zatia, aditu baten ahotik entzungo dute, **5. bideo-pasartean**. Entzun bitartean, bezeroari (irakasleari) argitu beharko lizkioketen puntu batzuk jasoko dituzte. Horiek eta grafikoaren bigarren zatikoak bezeroari nola azaldu prestatuko dute. (20')

Azalpena eta feedbacka

- Bezeroa (irakaslea) aurrean dutela, aseguruaren prestazioak zer eta nola eskuratzen diren argituko diote. Irakasleak nahi adina galdera egin lezake, bezeroak benetako elkarrizketa komertzialean egingo lukeen gisan.

3

Ataza: bezeroei aseguru-planak diseinatu

- Irakasleak bere orriaren 6 bezero ezberdinen datuak ditu. Irakasleek, hiruak jarrita, bezeroei aseguru-plan ezberdinak egokituko dizkiete euren datuak kontuan hartuz. Irakasleak jakinaraziko die gutxienez 2 eta gehienez 5 aseguruarekin osatuko dituztela plan ezberdinak eta egingo dituzten aukerak arrazoitu egin beharko dituztela. (20')

Azalpena

- Irakasleak, arbelean, talde guztiek bezero bakoitzari gomendatuko lizkiokeen aseguruak idatziko ditu eta argudioak entzungo baina eztabaidari lekuri utzi gabe. (15')

Feedbacka

- Arbelean jasotakoa irakasleak zuzenketa-orriaren dituen gomendioekin alderatuko dituzte. Ez dizkie bezero guztien aseguru-planak esango. Bakarrik **1-3-5-6** bezeroen planen berri emango die(*). Gainerakoak, **2-4** bezeroenak **6. bideo-pasartean** entzunez jakingo dute. (20')

Atazaostea

- Aurreko bezeroei aseguruaren plan bat nola saldu simulatzeko aukera emango die irakasleak. Horretarako, hiruko taldeetan jarraituz, bezero bana egokituko die taldeei (**1-3-5-6**). Aurrez aurreko elkarrizketa prestatzeko behar adina denbora emango die, bideoan ikusi dutenaren **transkripzioa (eranskina 4)** aurrean dutelarik. Bertatik, ideiak eta hiztegia jasotzeaz gain, hizkuntza formak ere jaso ditzakete. (15')
 - Gero, talde bakoitzak egokitu zaion bezeroarekin burutuko du elkarrizketa komertziala. Simulazioa izango denez irakaslea edo beste talde bateko kide bat izan daitezke bezero. (20')
- (*). Irakasleak gomendatutako aseguruaren izenak bakarrik (testuan beltzez nabarmenduak agertzen dira) aipatuko ditu eta irakasleek zalantzarik izango balute bakarrik azalpen luzeagoak emango litzuzke.

1 kasua.

Ezkongabea, 25 urtez azpikoa, lan egiten du, autoa du eta gurasoekin bizi da.
Gure gomendioa: Zure kezka bakarra automobila ongi aseguratua edukitzea da.

Autoaren aseguruua

Aseguru garestia da, jakina, adina dela eta errekaratu bat aplikatzen dizutelako eta, seguruenik, baita zure gidabaimena aspaldikoa ez delako. Baina aseguruua ezinbestekoa duzu. Komeni zaizu, dena den, zure kalte propioentzako frankizia bat hartzea (**Arrisku Orotako** aseguruua esaten zaiona) eta horrek aseguruaren prezioa jaitsi egiten du. Diruz ezin badiozu horrelako aseguru bati aurre egin **Hirugarrenentzako Aseguru Zabaldua** iradokitzen dizugu, zuk zerorrek beste batzuei autoarekin eragindako kalteak estaltzen baitzikizu, gehi sutea, lapurreta eta autoaren galera. Autoak bost urte edo gehiago baldin baditu **Hirugarrenentzako** estaldura soila gomendatzen dizugu.

Aurrezki eta/edo Erretiroko Aseguruak

Gaztea zaren arren, eta aukera izanez gero, hileru zerbait aurrezte gomendatzen dizugu. Aurrezki-plan sistematikoren bat gomendatzen dizugu eta nagusiki **Pentsio Plan** bat, aurrezteaz gain abantaila fiskal garrantzitsuak eskainiko dizkizulako. Dena den, aurrezki horiek erretiroa baino lehen erabiltzeko asmoa baduzu, apartamenturen bat erosteko adibidez, **Unit Linked** modukoa komeni zaizu gehien. Beste aukera bat **Erretiroko Aseguruua** izan daiteke, interes-tasa bermatua ematen baitu.

3. kasua

ezkonduta urte gutxi daramatzaten senar-emazteak, umerik ez dute, biak lanean, bi automobil eta etxe propioa dutenak
Gure gomendioa: Egungo ondarea aseguratzeaz gain, etorkizunean ere pentsatu behar da.

Autoaren aseguruua

Autoen kasuan, ahalik eta ezbehar gutxien deklaratzeko komeni da, eta horretarako lagungarri izan daiteke frankizia bat kontratatzea. Bosgarren urtetik aurrera, aseguruua **Hirugarrenentzako** modalitatera pasatzea gomendatzen dizugu. Babes gehiago nahi izanez gero, hirugarrenentzako gehi suteak, lapurreta eta galera kontrata ditzakezu, hau da **Hirugarrenentzako Aseguru Zabaldua** esaten zaiona.

Etxearen aseguruua

Zuen etxe propioa duzuenek, arriskuak estaltzeko **Etxearen Aseguruua** gomendatzen dizugu. Horren barruan **edukitzaila** aseguruatu behar da (etxebizitza bera) bere berreraikuntza-balioagatik, eta baita **edukia** ere (alegia altzariak, arropak, musika-ekipoa, ordenagailua, etab.) bere birjarpen-balioaren truke.

Bizitza-Aseguruua

Etzera bi soldata sartzen direnez, istripu bat edo heriotza nahiz baliaezintasuna ekarriko lukeen gaixotasun bat dela medio horietako diru-iturriren baten falta aurreikusitako behakoa litzateke. Estaldurarik onena **Aldi baterako Aseguruua** bat litzateke, senarrak nahiz emazteak beste ezkontideari aurrera ateratzeko adinako kapitala garantizatuko liokeena. 40 urtetik beherako pertsonentzat primak oso baxuak dira eta 10-15 urterako egin daitezke horrelako aseguruak.

Aurrezki eta Erretiroko Aseguruak eta Pentsio Planak

Aurrez lortutako bizi-maila mantentzeko modua ematen duen aldi baterako aseguruaz gain, aurrezki-plan sistematikoren bat ere gomendatuko genizueke eta, nagusiki, **Pentsio Plan** bat, aurrezteaz gain aldi berean abantaila fiskal garrantzitsuak eskainiko dizkizuelako. Dena den, aurrezki horiek erretiroa baino lehen erabiltzeko asmoa baduzue, **Unit Linked** modukoa komeni zaizue gehien. Edo bi formulak konbinatzea, zuen aurrezteko gaitasunak horretarako aukerarik ematen badizue. Beste aukera bat **Erretiroko Aseguruua** izan daiteke, interes-tasa bermatua ematen baitu.

Osasun-aseguruua

Agian komeni zaizue **Osasun poliza** bat kontratatzea. Aukera oso zabala daukazue

5. kasua

Erretiratutako senar-emazteak

Gure gomendioa: Ondarea babesteaz gain, zuen aurrezkiak modu egokian kudeatzeko neurriak hartu beharko zenituzkete.

Autoaren aseguruua

Autoen kasuan, ahalik eta ezbehar gutxien deklaratzeko komeni da, eta horretarako lagungarri izan daiteke frankizia bat kontratatzea. Bosgarren urtetik aurrera, aseguruua **Hirugarrenentzako** modalitatara pasatzea gomendatzen dizugu. Babes gehiago nahi izanez gero, hirugarrenentzako gehi suteak, lapurreta eta galera kontrata ditzakezu, hau da **Hirugarrenentzako Aseguru Zabaldua** esaten zaiona

Etxearen aseguruua

Zuen etxe propioa duzunez, arriskuak estaltzeko **Etzeko Arriskuanitza** gomendatzen dizuegu. Horren barruan **edukitzailera** aseguratu behar da (etxebizitza bera) bere berreraikuntza-balioagatik, eta baita **edukia** ere (alegia altzariak, arropak, musika-ekipoa, ordenagailua, etab.) bere birjarpen-balioaren truke.

Biziarzteko Errenta

Zuen ondareari dagokionez, lortutako bizi-maila behar bezala garantizatzeko erabiltzea da garrantzitsuena. 70 urte arte, Aldi Baterako Bizitza Aseguruua mantendu ahal izango duzue, garai batean kontratatu bazenuten, baina orain gehien komeni zaizuen **Biziarzteko Errenta** bat kontratatzea da, zuen erretiroko diru-sarrerak osatuko dituen.

Aurrezki aseguruua – Unit Linked

Zuek bezala erretiratutako senar-emazteen kasuan, inbertsioetan zuhur jokatzeko gomendatzen da. Baina kapital handi samarra edukiz gero, inbertsioa **Unit Linked** moduan egitea pentsa daiteke, produktu oso seguruak hautatuz (Estatuaren Zorra adibidez)

6. kasua

Alarguna, lanerako adina gaiturua duena.

Gure gomendioa: Ondarea babesteaz gain, zure aurrezkiak modu egokian kudeatzeko neurriak hartu beharko zenituzke.

Autoaren aseguruua

Autoaren kasuan, ahalik eta ezbehar gutxien deklaratzeko komeni da, eta horretarako lagungarri izan daiteke frankizia bat kontratatzea. Bosgarren urtetik aurrera, aseguruua **Hirugarrenentzako** modalitatara pasatzea gomendatzen dizugu. Babes gehiago nahi izanez gero, hirugarrenentzako gehi suteak, lapurreta eta galera kontrata ditzakezu, hau da **Hirugarrenentzako Aseguru Zabaldua** esaten zaiona

Etxearen aseguruua

Zure etxe propioa duzunez, arriskuak estaltzeko **Etzeko Arriskuanitza** gomendatzen dizugu. Horren barruan **edukitzailera** aseguratu behar da (etxebizitza bera) bere berreraikuntza-balioagatik, eta baita **edukia** ere (alegia altzariak, arropak, musika-ekipoa, bitxiak, etab.) bere birjarpen-balioaren truke.

Biziarzteko Errenta

Zure ondareari dagokionez, lortutako bizi-maila behar bezala garantizatzeko erabiltzea da garrantzitsuena. 70 urte arte, Aldi Baterako Bizitza Aseguruua mantendu ahal izango duzu, garai batean kontratatu bazenuen, baina orain gehien komeni zaizuna **Biziarzteko Errenta** bat kontratatzea da, zure erretiroko diru-sarrerak osatuko dituen.

Jubilatu baten egoerak zure zuzentasuna gomendatzen du betiere inbertsioak egiteko orduan. Baina kapital handi samarra edukiz gero, inbertsioa **Unit Linked** moduan egitea pentsa daiteke, produktu oso seguruak hautatuz (Estatuaren Zorra adibidez)

Azkeneko aukera etxebizitza propioa aseguruu-erretiro bati ematea da, hil artean zerorrek okupatzeko baldintzarekin eta biziarzteko errenta bat garantizatzen dizutela. Ildo honetan, hirugarren adinarentzako egoitza batzuk eskaintzen dituzten alternatibak arriskuak dituzte, eta horregatik arreta handiz aztertu behar lirateke

D ATAZA: ARRISKUANITZA

HELBURUAK

- Aseguruei lotutako hitz eta esamoldeen berezitasuna ezagutu eta lantzea.
- Bizitza-aseguruaren premiaz iritzia ematea.
- Informazioa elkarri ematea.
- Bizitza-aseguruaren kostua kalkulatu eta horren berri ematea

ZERTAN DEN

- Kontzeptu eta esamolde batzuen formulazioa lantzen hasiko dira. Lehen azpiatazan, aldizkari espezialdu baten artikuluan oinarriturik, bizitza-aseguruaren premiaz jardungo dute eta, bigarren atazan, aseguruua kontratatzeke trukuak elkarri ezagutaraziko dizkiote. Hirugarren azpiatazan, aseguruaren eguneroko kostua kalkulatzeko arituko dira eta, laugarrenean, hiru erakundek on-line egiten dituzten eskaintzak aztertuko dituzte, bezeroen ikuspegitik.

Prozedura:

1

Gramatika eta diskurtsoa

- Elkarriketa komertzialak egoki bideratzeko hainbat hitz eta kontzeptu erdaraz bezala euskaraz ere buruz ikasi behar direla azpimarratu dugu aurreko atazetan. Oraingoan, aseguruaren estaldurak euskaraz formulatzeko moduari errepara diezaioten jarduera hau egingo dute.
- Ikasleek zerrendako estaldurak lau aseguru-mota ezberdinetan sailkatuko dituzte. Ez da eginkizun zaila eta irakasleak euskarazko formulazioari erreparatzera bultzatuko ditu buruz ikas ditzaten. (10')
- Zuzendu eta gero, irakasleak horietako kontzeptu batzuk erdaraz esango ditu ikasleek euskarazko ordaina buruz eman diezaioten. (10')

Zuzenketa-orria

1. Ibilgailuen aseguruari dagozkion estaldurak:
 - Peritazioa 24 orduren buruan.
 - Norberak aukeratutako tailer mekanikoa.
 - Bidaiako asistentzia (0 Km).
 - Istripuen ondoriozko Defentsa Penala.
2. Etxebizitza-aseguruari dagozkion estaldurak:
 - Urak egindako kalteak, zure auzoek sortutakoak barne.
 - Halabeharrez hautsitakoak: Kristalak, ispiluak, loza sanitarioa, marmolak, granitoak, bitrozeramika.
 - Kreditu-txartelaren iruzurrezko erabilera.
3. Bizitza-aseguruari dagozkion estaldurak:
 - Heriotza gertatuz gero, kapital bat jasotzea.
 - Erabateko ezintasun iraunkorra.
4. Istripu-aseguruari dagozkion estaldurak:
 - Istripuzko heriotza.
 - Ezintasun iraunkorra.

Ataza: bititza-aseguruen premiaz eztabaidatu

- Ikaslearen orrian Capital aldizkariaren artikulu baten laburpena jarri dugu. Ikasleek, bakarka, testua irakurri ostean, **7. bideo-pasarte**an hiritarren iritziak entzungo dituzte. (10')
- Hiritarren adierazpenetatik lau esaldi atera ditugu ikasleek komenta ditzaten. Euren komentarioak irakurri berri duten artikuluan oinarritzeko eskatuko die irakasleak. Launaka jarrita burutuko dute eztabaida. (15')

2

Ataza: aseguruaren kontratatze trukuak jorratu

- Artikuluak bititza-asegurua kontratatze 12 trukuen berri ere ematen du. Ikaslearen orrian 12 truku horiek gehi gezurrezko beste hiru jarri ditugu. Ikasleak launaka bilduko dira eta irakasleak, **5. eranskinetik** hartuta, talde bakoitzari bere fitxan truku horietatik lau emango dizkio. Talde bakoitzak bere fitxako lau trukuak identifikatuko ditu zerrendan, eta jarraian, gainerako artean egiazkoak diren zortzi trukuak identifikatu beharko ditu. (10')
- Jarraian talde berriak osatuko dira, eta ikasleek aurreko fasean egindako aukerak besteek egindakoekin konparatuko dituzte, betiere hamabi trukuak gehi hiru gezurrezkoak zeintzuk diren adostuz. (10')

Zuzenketa-orria

- Kontuz maileguei lotuak dauden bititza-aseguruekin.
- Zure kredituarekin batera aseguru bat egitea gomendatzen badizute, kontuz!
- Aseguruaren primak merkeagoak dira udan neguan baino
- Ez fidatu aseguruaren estaldura osagarriekin
- Bititza/aurrezkoa moduko aseguruetan...
- Ongi aukeratu aseguru-mota, bakarra egin dezakezu-eta...
- Kontuan hartu ea prima KPIaren arabera birbaloratzen den ala ez.
- Irakurri ondo kontratuaren letra txikia.
- OCU erakundeak aseguru kolektiboek mesfidatzeko aholkatzen du.
- Zure aseguruaren duela urte batzuk kontratatu bazenuen...
- Esan beti egia zure osasun-egoeraren inguruan.
- Bititza/arriskua moduko aseguru bat bere epera ailegatzen bada...
- Ez utzi ezer galdetu gabe.
- Erregela proportzionala aplikatzen saiatu behar duzu.
- Ahal dela, saihestu bitartekari edo artekariak.

3

Ataza: aseguruaren eguneroko kostua kalkulatu

- Ataza honetan aseguru baten eguneroko kostua kalkulatu dute. Horretarako, binaka jarrita, gutun komertziala irakurri eta adibidearen kalkulua nola egin den ulertuko dute. Gero, beste bi ikaskideren datu familiarrak jaso ondoren (irakasleak ikasle bakoitzari paper txuri batean idazteko eskatuko die) gutunean erabiltzen den formulari jarraituz kalkuluak egingo dituzte. (20')

Azalpena

- Kalkulua egin duen ikaslea eta interesatua bilduko dira elkarri azalpena egin diezaioten. (10')

Feedbacka

- Irakaslea bikotez bikote ibili da elkarrizketak entzuten eta, segur aski, kalkuluak egiteko moduz hainbat ohar jaso ditu ikasleei jakinarazteko.

4

Ataza: erakunde ezberdinen publizitatea aztertu

- Ikasleek Euskal Herriko hiru erakunde finantzarioren bizitza-aseguruari buruzko informazioa on-line emateko era aztertuko dute. Hirunaka jarrita, hiru aukerei erreparatu ondoren, taulako informazioa beteko dute euren iritzia islatuz. Gero, sailkatu egingo dituzte onenetik eskasenera. (15')

Azalpena

- Talde guztien sailkapena eta iritziak jasoko dira denon arteko saio laburrean. (5')

Gramatika eta diskurtsoa

- Hiztunak kantitateak konparatzeko hainbat egituren artean aukera egin behar izaten du, asko dira eta erabil daitezkeen formulak. Aseguruen inguruko testuetan horrelako egiturez osatutako esamolde piloa aurkitu dugu. Esaterako, ikaslearen orriko testuan kalte-ordainen zenbatekoak adierazteko esamoldeak.
- Testutik hainbat egitura hustu ditugu. Ikasleak, lehendabizi bakarka, testuingurua ulertuta, hutsuneotan jarriko lituzkeen egiturak pentsatuko ditu. Gero, bere erreperitorioan edo aurkitu ez dituelako zerrendatutako egiturak baliatuko ditu testua osatzeko. Azkenean, irakaslearen gidaritzapean, testua osatu eta zalantzak argituko dituzte. (20')

Zuzenketa-orria



Bizitz Asegurua

Berebiziko lasaitasuna.

Errentagarritasunik handiena preziorik txikienean eskuratzeko.

- **Bizitz Aseguru** honek oinarrizko berme gisa ASEGURATUAREN EDOZEIN KAUSARENGATIKO HERIOTZA estaltzen du. Aseguraturiko Kapitala bezainbatekoa izango den kalteordain batekin.
- Baina gainera, oso diru gutxiren truke, **beste aukerazko berme** batzuk ere gehigarritzat kontratatu ahal izango duzu:
 - **Istripuzko heriotza:** kalteordaina Aseguraturiko Kapitalaren **halako bi** izango da.
 - **Zirkulazio-istripuzko heriotza:** kalteordaina Aseguraturiko Kapitalaren **halako hiru** izango da.
 - **Baliaezintasuna erabatekoa eta iraunkorra:** kalteordaina Aseguraturiko Kapitala bezainbatekoa.
 - **Istripuzko baliaezintasun erabatekoa eta iraunkorra:** kalteordaina Aseguraturiko Kapitalaren **halako bi** izango da.
 - **Zirkulazio-istripuzko baliaezintasun erabatekoa eta iraunkorra:** kalteordaina Aseguraturiko Kapitalaren **halako hiru** izango da.

(Kalteordain hauek bata bestea baztertzen dute).

2. TESTUAK ETA FITXAK

ATAZA: ATODORRIESGOA

ASEGURUEN HISTORIA

Elkar-laguntzatik asegurura

... Izan ere, familia, tribua edo klana bezalako komunitate naturaletan, elkar-laguntza hori berez agertzen da, ezer gutxi antolatua izan arren; baina Antzinaterik zaharrenean jadanik agertzen dira antzeko arriskuen pean zeuden pertsonak elkarren artean laguntzeko asmoz sortutako erakundeak. Horrela, Kristo aurreko 1400 urte inguruan Egiptoko harginek bazuten fondo bat, lanean gerta zitezkeen istripuen kasurako, eta Grezia klasikoan emagalduek era bazituzten kutxa komunak, hileroko kotizazioekin hornitzen zirenak, kasu berezietan laguntzak banatzeko.

Erdi Aroan, asoziaziorako espiritua indartzeak eta Elizaren eraginak izugarri zabaldu zituzten aurreneko mutualitate-forma haiek. Eta artisauen edo merkatarien komunitate gehienetan (korporazio, kofradia, hansak, etab.etan) elkartasun-kutzak eratu ziren, beren kideei laguntzeko. Guilda anglosaxoiek, esaterako, asistentzia-fondo bat zuten eta laguntzak banatzen zituzten era askotako ezbeharrak (suteak, lapurretak, uholdeak) edota ganaduen heriotza masiboak gertatzen zirenean.

Baina kasurik gehienetan “mutua” horiek ez zuten inolako aurreikuspen-ahaleginik eskatzen eta kideen eskuzabaltasuna *ezbeharraren ondoren* bakarrik gertatzen zen, alegia arriskua ikusi eta jasan eta gero.

Aseguru-kontratua

Goi Erdi Aroan teknika juridikoetan egindako aurrerapenei esker, “itsas aldatetako kontratua” izenekoak jarri ziren martxan. Kontratu horien bidez urrutira bidaltzekoak ziren merkantziak aseguratzeko ziren nolabait, salgaiak beren helburura iristen ez baziren aseguru-emaileak, jarritako diruaren gaineko eskubide guztiak galduko lituzkeela ezarri.

Gisa horretako kontratuak herrialde guztietan

zabaldu ziren, baina oraindik urruti daude benetako asegurutik: Horrela, bada, aseguruaren jaiotza nahiko gauza berria da, alderdi teknikotik bederen, eta XIX. mendea arte aseguruaren eragiketa hiru arrisku nagusiak (itsasoko arriskua, suteen arriskua eta heriotzaren arriskua) estaltzera mugatua zegoen gehienbat.

Sute aseguru XVII-XVIII. mendeetan

Suteen kontrako aseguru XVII. mendean sortu zen Europako iparraldeko herrialdeetan, bertan etxegintzan sistematikoki egurra erabiltzeak ikaragarri gehitzen zituen eta suteak gertatzeko arriskuak. Are gehiago, populazioa garai berean asko gehitu zenez, jendea hirietan pilatzen zen, baldintza nahiko kaskarretan.

Horrela, 1666an lau egun behar izan zituzten okindegi batean hasitako sutea erabat mendean hartzeko: 13.000 etxe kiskalita geratu ziren, 175 hektarea hartu zituen azaleran.

Bizitza-aseguruaren jaiotza

XV. mende-hasieratik sinatzen ziren emaztearen edota gurasoen, eta baita hirugarrenen bizitzaren gaineko aseguru-kontratuak, horietako edozeinen heriotzak kontratu-egileari ekar diezazkiokeen kalte

posibleen ordaina nolabait garantizatzeko. Londreseko Burtsan 1583ko ekainaren 18an egindako poliza bat gordetzen da, eta bertan hiritar batek urtebeterako “asegurutzen” zuen bere andreaaren bizitza, ehuneko 8ko tasan hain zuzen ere.

Dena den, aseguruaren inguruko lege nagusiek (esate baterako Bartzelonako Ordenantzak edo 1681eko Colbert-ekoak) debekatu egiten zuten bizi-asegurua, “giza bizitzaren gaineko espekulaziotzat” hartzen baitzituzten kontratu horiek, gizakiaren biziari prezio jakin bat esleitzen zion aitzakian.

Ingalaterrako agintariak ez ziren hain zorrotzak, eta horrela 1721. urtean altxatu zuten bizitza-aseguruaren gainean ezarritako debekua.

Aseguruaren garapena azken mendeotan

XIX. mendean eta areago XX. mendean, aurrerapen

ekonomiko eta teknikoak aseguruaren izugarritzko garapena ekarri zuen. Nahiko lan zaila litzateke gaur egun aseguruak estaltzen dituen arriskuen zerrenda bat egitea, zerrenda hori egunetik egunera handituz doa eta.

Ondasunak ugalduz eta instalazioen kostua etengabe gehituz, iraultza industrialak asko handitu zituen bai arriskuen kopurua eta baita horien larritasuna ere, eta gaur egun inork ez ditu zalantzan jartzen arrisku industrialen garrantzia (fabriketako suteak, makinak apurtzea, laneko istripuak, etab.), ezta automobilen aseguruak estalitakoek ere.

Aldi berean, gizartearen eboluzioak (eta hemen hainbat faktore hartu behar dira kontuan: familiako solidaritateak atzera egin du, soldatuen eboluzioa, laneko espezializazioa, ondasun higiezinaren garrantzia txikiagoa), gero eta jasangaitzagoa bilakatu du segurtasun-falta.

ENC. UNIVERSALIS, 3. tomoa, 224-227 or.

ATAZA: ATODORRIESGOA

1. ALBISTEA

hemeroteca

Egunkaria

KIROLA

2001-06-20

REALA

Aseguru etxe batek 665 milioi pezeta ordainduko dizkio Juan Gomezengatik

Atletico Madril taldeak ez du Lehen Mailarako igoera lortu, eta horrenbestez ez dizkio 700 milioi pezeta ordaindu beharko Realari Juan Gomezen fitxaketarengatik. Baina,
 Atletico Madril Bigarren Mailan geldituz gero, aseguru etxeak 665 milioi pezeta ordainduko zizkion Realari. Eta hala gertatu da. Diru hori primeran etorriko zaio Realari.

2. ALBISTEA

hemeroteca

Egunkaria

EUSKAL HERRIA

GIZARTEA

2001-07-08

SEGURTASUNA. Aholku sorta eskaini dute

Udako lapurreten arriskuaz ohartarazi du Ertzaintzak
 Salaketa jarri eta aseguru etxeari berri eman behar zaiola
 gogorarazi diete herritarrei

Erredakzioa / Donostia

Uda aldean etxebizitzetan lapurretak ugaltu egiten direla ohartarazi du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, etxetik kanpo denbora gehiago egiten duelako jendeak. "Udako egunetan etxe gehienak hutsik egoten dira, eta horrek asko errazten die lana lapurrei", adierazi dute Ertzaintzatik, prentsa ohar baten bitartez.

Herrizaingo Sailaren arabera, "lapurrek egunak ematen dituzte etxebizitzetara begira"; batez ere, kanpoaldean aldaketarik ikusten ez denean edota bertan bizi direnak egunero ordu bertsuetan ibiltzen direnean. Ildo horretan, lapurretak edozein ordutan gerta daitezkeela baina normalean arratsalde partean izaten direla dio komunikabideetara bidalitako oharra.

.....

3. ALBISTEA

EL PAIS.es

Oporrak arrisku orotako aseguruarekin

Gero eta gehiago dira zertxobait gehiago ordaintzeko prest dauden pertsonak, baina hori bai, ezusteko guztiak behar bezala estalita dituztela bidaiatzeko segurtasunarekin abiatzen direnak. Osasun-laguntza, ekipajeen lapurreta edo galera eta bidaiaren ustekabeko kantzelaioa izaten dira turistek kezka nagusiak. Hala ere,
 Oraindik ere oso gutxi dira beren zerbitzuak bidaietako laguntza-alorrean eskaintzen dituzten aseguru-konpainiak, sektorea iaz % 15 hazi baldin bazen ere.

4. ALBISTEA

hemeroteca

Egunkaria

EKONOMIA

2002-02-27

ASEGURUAK**Lagun Aro taldearen fakturazioa %26,5 hazi zen iaz**

Erredakzioa / Donostia

Lagun Aro-ren fakturazioa %26,5 hazi zen iaz.
 , eta

Aurtengo urtea ere oparoa izango dela uste dute, gainera, Lagun

Arokoek eta 117.000.000 euroko sarrerak izatea aurreikusten dute. Talde horretako arduradunek esan zutenenez, emaitzok Lagun Aro Hego Euskal Herriko aseguru en merkatuan "punta-puntan dagoela argi erakusten du".

5. ALBISTEA



AZKENAK

Berriak

Ezbaika

Zerbitzuak

Ikusentzun

Denborapasa

Gara

Webgida

Oinezkoen eta txirrindularien babesa aseguruetan hobetu gura dute European

Istripuen biktimenezko kalte-ordainen hobekuntzak ez ei du aseguruarek garestituko

Europako Batzordeak ibilgailuen aseguruak istripuen biktimei ematen dizkieten kalte-ordainak hobetzeko proposatu zuen atzo. Txirrindulariek eta oinezkoek nabarituko lukete gehien onura. Proposamena onartuz gero, , eta kalte materialengatik ematen dutena, berriz, bost aldiz handiagoa izango litzateke. Halaber, EB osoan araudia parekatzea ere badute helburu.

6. ALBISTEA



2001.EKO IRAILAREN 22TIK 23RA. 96. ZENBAKIA
TRUKE ASEGURUAK DIBISEN GORABEHERETATIK SALBU IZATEKO TRESNA

Esportazioentzako kreditu aseguruak, beste estaldura bat

Dibisen gorabeherak atzerrira esportatzen duten enpresa askoren kezka badira ere, ez dira esportazioak arriskuko operazio bilakatzen duten faktore bakarrak, beste askok ere oztupoak eragin baititzakete; kobrantzetan, esaterako. Atzerrian burutzen diren eperako salmentetan bi arrisku handi daude: merkataritza berari loturikoak alde batetik, eta haietatik kanpo geratzen diren ez-ohiko arriskuak, bestetik. Merkataritza arriskuen barruan sartzen dira, adibidez, eroslearen kaudimen-eza, edota ordainketen atzerapen luzeak (sei hilabetekoa jotzen da atzerapen luzetzat). Ez-ohiko arrisku horiek ezin dira aurreikusi kasu gehienetan eta eragiten dituzten kalteak ere ezin dira neurtu askotan. Hori dela eta, merkataritzarekin loturik dauden arriskuen estaldura aseguru konpainia pribatuek bere gain hartzen duten bitartean, ez-ohiko arriskuak estatuek bereganatzen dituzte.

7. ALBISTEA

www.zabalik.com

2001.EKO IRAILAREN 22TIK 23RA. 96. ZENBAKIA
TRUKE ASEGURUAK DIBISEN GORABEHERETATIK SALBU IZATEKO TRESNA

Depreziazioetatik ondo babestuta

OLATZ ELOSEGI/ERREDAKZIOA

Dolar indartsua eta euro ahula. Nazioartean merkatu kuota eskuratzeko egoera paregabea izan da azken hilabeteetako Europako enpresentzat. Euren esportazioen prezio baxuek gainerakoekin lehiatzeko aukera ezin hobea eskaini diete, eta konpainia asko baliatu dira abantaila horretaz. Orain, ordea, zalantzak sortzen ari dira, eta egoerak buelta eman dezakeela pentsatzen duenik ere bada. Munduko ekonomiaren -batez ere AEBetakoarena- moteltzeak eta New York eta Washingtingo atentatuen ostean gerra baten atarian izateak zalantza ugari sorrarazi ditu askorengan. Zer gertatuko litzateke egoera horretan dolarra depreziatuko balitz? Zer gertatuko litzateke, esaterako, atzerrian kontratuak dolarretan hitzartuta dituzten Europako konpainiekin? Gutxiago kobratuko ote lukete?

.....

ATAZA: LASAITASUNEAN BIZITZEKO GILTZA

ASEGURAMENDU PERTSONALEKO PLANA

Ikus dezagun jarraian bezero jakin bati bere lehentasunak aukeratzeko orduan zer-nolako aholkuak eman dakizkiokeen eta zergatik.

A. Nahitaezko Aseguruak

- Indarrean dagoen legeriak obligaziozko edo nahitaezko bezala jotzen dituen aseguruak kontratatu beharko dira lehenik eta behin. Aseguru horiek ez kontratatzeak zigor garrantzitsuak dakartza berarekin.
 - Automobilen Nahitaezko Asegurua: motor-ibilgailu baten jabeak zirkulazioko istripu bat dela medio pertsoneri nahiz ondasunei eragindako lesio edo kalteen erantzukizun zibila garantizatzen du, muga hauetaraino:
 - Kalte pertsonalak: 350.000 € biktimako
 - Kalte materialak: 100.000 € istripuko
 - Ehiztariaren Erantzukizun Zibileko Nahitaezko Asegurua: ehiztariak, ehizean dabilela gerta daitekeen edozein kalteren erantzukizun zibila garantizatzen du, 90.151,82 €-ko mugaraino biktimako (urtarrilaren 21eko 63/1994 Errege Dekretua).
 - Itsasontzien Erantzukizun Zibileko Nahitaezko Asegurua: jolas edo kirol-ontzien jabearen erantzukizun zibila garantizatzen du, 120.202,42 €-komugaraino biktima bakoitzeko, izanik ezbarharreko gehienezko topea 240.404, 84 €-koa (apirilaren 16ko 607/1999 Errege Dekretua).
 - Erantzukizun Zibileko Nahitaezko Asegurua hirugarrenen aurrean, potentzialki arriskutsuak diren txakurren jabeentzat (abenduaren 23ko 50/99 Legea), zenbait Autonomia Erkidegok bere aldetik ezarritako legeriaz gain.

B. Irabazpideak edo sarrera-iturriak

- Garrantzi handikoa da ohizko irabazpideak gutxitu ditzaketen arriskuen kontra babestea: famili unitatera diru-sarrera horiek ekartzen dituen pertsonetako baten baliaezintasuna edo heriotza esate baterako.
 - Aldi baterako Bizitza Aseguruak kapital bat jasoko duela garantizatzen dio familiari, heriotza edo erabateko baliaezintasuna gertatuz gero, edozein kausa dela medio.
 - Istripu Aseguruak kapital bat garantizatzen du, istripu batek eragindako heriotza edo baliaezintasuna (totala nahiz partziala) gertatzen denean.
 - Aldi baterako Baliaezintasunagatiko Laguntza Aseguruak familiaren beharrian ekonomikoak estaltzen ditu, gaixotasuna edo istripua dela medio lanik egin gabe ematen duen denboraldia bitartean.

C. Ondarea

- Zure ondarea, materiala bezala baita finantzarioa ere, arriskuan jar daiteke beste hirugarren batzuek egindako erreklamazioengatik, kalte ekonomiko oso larriak sor baititzakete, sarritan ondarearen beraren balioa baino dezentez handiagoak izatera irits daitezkeenak. Erantzukizun Zibileko aseguruak dira arazoaren konponbidea. Normalean eta erantzukizun zibil profesionalaren kasuan izan ezik, kontratu oso merkeak izan ohi dira.
 - Erantzukizun Zibileko Asegurua familiako buru, partikular, etxebizitzaren jabe, etab. bezala. Estaldura hau Etxeko Arrisku anitzeko aseguruetan integratua egoten da normalean.

Horrez gain, bezeroaren ondarea osatzen dituen ondasunetatik zeintzuk diren ezinbestekoak pentsatu eta zein arriskuren kontra babestu nahi diren erabaki beharko da (adibiderik ohizkoena etxebizitza suteen kontra aseguratzea izan daiteke).

- Etxeko Arrisku anitzeko Asegurua
- Ibilgailuen Arrisku Oroko Aseguruak

D. Etorkizuneko aurreikuspena

- Bezeroaren aurrezteko gaitasunari begiratu behar zaio, bere erretiroa prestatzen hasteko. Iraupeneko lasterketa bat da. Zenbat eta lehenago hasi, orduan eta errazagoa izango da erretirorako diru-kopuru handia kapitalizatzea. Kapital hori osatzeko hilero zenbateko txikiak jar daitezke edota bestela aldian behin inbertsio handiagoak eginez. Bezeroak erabaki beharko du zer den berarentzat garrantzitsuagoa:
 - Aurrezki sistematikoa eta arriskurik gabea egitea (Aurrezki plana)
 - Ahalik eta zerga-arinketarik handiena lortzea (Pentsio Planak)
 - Inbertsio finantzario bat egitea, argi eta garbi (Unit Linked)Azkeneko biak ez dira zehazki aseguru bezala hartzeko modukoak, baina produktu horietatik edozeinek aurrezteko modua emango dio bezeroari. Hala ere, fiskalitatean, errentagarritasun finantzarioan (garantizatua izan ala ez) eta likidezian dituzten aldeei begira, bata ala bestea aukeratu beharko da. Elkarren artean konbina daitezke, programa orekatu bat lortuz.

E. Zerbitzuak

- Azkenik, bezeroak erabaki beharko du ea bere bizi-kalitatea hobetu nahi duen, kalitate-maila hori igotzeko modua ematen dioten zerbitzuak kontratatuz:
 - Osasun Aseguruak. Medikuntza pribatuaren onurak eskaintzen dizkizute, sanitate Publikoaren osagarri gisa.
 - Zerbitzu Juridikoak zure interesak defendatzeko.
 - Bidaia Asistentzia, bidaiatzerakoan babesa eta laguntza eskaintzen dizkizuna.
 - Laster Menpetasuneko aseguruak, etxean zeure buruaz edo familiarterako batez arduratzeko laguntza emango dizuna.

ATAZA: ARRISKUANITZA

A taldearen fitxa

- Legez ez daukazu kontratatu beharrik. Gainera, zu hil ondoren, aseguru-konpainiak ez diela zorrei aurre egiten gerta dakieke zure oinordekoei, batez ere mailegu-emailea (bankua edo aurrezki kutxa) eta aseguratzalea erakunde bera direnean. Horregatik, banka-erabiltzaileen elkarteak (AUSBANCek) aseguru eta mailegua bi konpainia edo etxe desberdinekin kontratatzea gomendatzen du.
- Bertan aipatzen baitira aseguruaren estaldurak dituen eskusioak, frankiziak eta gabealdiak.
- Ez dira beti hain merkeak izaten, eta kasu horietan, gainera, ezin izaten da aseguru indibidualetan adina informazio lortu.
- Saltzaileak edo aseguruen komertzialak zu ezinezkoak konbentziazteko prestatuak daude eta.

B taldearen fitxa

- Eta ziurtatu ohizko arriskuak (heriotza eta baliaezintasuna batez ere) estaltzen dituztela.
- Ez baitaukate balio bera 6.010 €-k 2002an edo heriotza gerta daitekeen unean. Agian diru hori mordoxka polita irudituko zaizu gaur egun, baina hemendik 20 edo 30 urtera ez da hainbesterako izango.
- Galdetu ea kontratuen baldintzak hobetu ote diren. Horrela izanez gero, berrikusteko eska dezakezu. Eta komeni ez bazaizu, hortxe duzu beti aseguru-etxez aldatzeko aukera.
- Egiten duten gauza bakarra azken prezioa garestitzea da. Zoaz zuzenean aseguratzalearengana.

C taldearen fitxa

- Hipoteka edo mailegua ordaintzeaz amaitu ondoren ere, aseguru-etxeak kuota pasatzen jarraitzen du, bezeroak kontrakorik abisatu ezean. Eta urteroko errezibua izan ohi denez, bezeroa ez da konturatzen nahi ez duen zerbait ordaintzen ari dela.
- Galdetu zenbat denbora pasa behar duen inbertitutako kapitala berreskuratu ahal izateko, eta dirua epea baino lehen kobratzeak duen errekargua.
- Zerbait ezkutatu baduzu edo gezurretan ibili bazara, aseguru-konpainiak onuradunei ordaintzeari uko egin diezaioke.
- Eta aseguratuak bizirik jarraitzen badu, ez du batere kapital aseguraturik jasoko. Baina aurrezki aseguru bat baldin bada, kapitala gehi etekinak itzuliko dizkiote. Kontuz: 40 urtetik azpikoa bada, jarritako diru-kopuruaren % 45arengatik bakarrik tributatu du. Proporzio hori beherantz doa, eta 70 urtetik aurrera % 20ari dagokiona soilik ordainduko du zergatan.

